

BERRIA (2006-02-18)

Bertsoa sarean

Jon Abril

BERTSOA INTERNETEN. Teknologia berrietara heldu zen aspaldian bertsolaritza. Webgune frankotan dago bertsolaritza harrapaturik, baina argi-ilunak ere baditu. Informazio gaurkotua, eguneratua eta bertsolaritzaren gaineko hainbat baliabide eskaintzen duten webguneak egon badaude. Bertsolarien presentzia, ordea, eskasa da, eta nabarmentzekoa da, adibidez, ez dela blogik soilik bertsolaritzaz aritzen dena. Horiei guztiei errepasoa egin diegu.

Bertsolaritzaz ari garela, makina bat webgune topa dezakegu sarean. Horien artean nabarmenenak hautatu ditugu, eta horien gainean aritu gara, indarguneak eta hutsuneak antzematen.

- Bertsozale Elkartea: Ezbairik gabe webgunerik osatuena, txukunena, gaurkotasun handiena duena eta erreferentea da (www.bertsozale.com). Ia dena dago bertan. Bertsozale Elkartek kudeatua da, eta bertan topa daiteke bertsolaritzaz sarean dagoen ia-ia guztia. Txapelketa Nagusiaren aitzakiarekin webgunea goitik beheiti eraberritu zuen Bertsozale Elkartek. Elkartearen beraren webgunea bada, baina bereziki bertsolaritzaren webgunea da. Lehenbiziko orrian albisteak, berriak, eta prentsan agertutako hainbat lotura ageri da bertan, baita agenda osatua eta eguneratua ere. Baina webgune honek makina bat txoko eta atal ditu, horietako zenbait hagitz ongi hornituak eta benetako gozokiak direnak. Atalen artean, nabarmentzekoak dira sarean zintzilik jarrita dauden 6.160 bertsoaldi irakurtzeko moduan, eta bertze 1.050 entzuteko. 1988az geroztik plazaz plaza grabatutako saioak dira, edo 1986az geroztik egindako herrialdeko txapelketa eta Txapelketa Nagusikoak. Bertsolaritzaren eremuan bertsoa zer den, historia eta bertsolaritzaren jardun eremua biltzen dira bertan. Webguneak duen bertze aberastasun nagusienetakoa doinutegia da. Joanito Dorronsororen doinutegia sarean dago. 2.775 doinu entzun daitezke, ordenagailura jaitsi, edota bere partitura ikusi. Gainera, doinuak neurriaren arabera, egilearen arabera, estiloaren arabera... hauta daitezke, hautaketa aukera handia eskaintzen baitu webguneak. Elkartearen gaineko informazio guztia ere topatuko du bertsozaleak bertan: sailak, herrialdeak, elkartearen historia, organigrama, bazkideak, finantzak, eta baita elkartek argitaratutako katalogo zabala ere. Bertan erosteaz gain, webgunearen liburutegi digitalean dauden liburuak markaturik daude, eta modu horretan, liburuaren edukietara sar daiteke webgunean bertan. Webguneak leku berezia egiten die ETB1eko Hitzetik Hortzera saioari, bertso eskolei, txapelketei eta kulturarteari. Argazki album bat ere biltzen du bertan. Prentsarako gune bat ere badu, eta elkarteko bazkideei banatzen zaien berripaperaren bertsio elektronikoa bertan dago. Ttikientzat edo ez hain ttikientzat bertsoekin jolasean aritzeko aukera eskaintzen du, jolasen atalean. Guztiz garatu gabeko gune bat ere badu, bertsolaritzako eragile ezberdinen gaineko fitxak. Nor da nor atalean Haitzondo egitasmoa bildu nahi dute. 2018 pertsonaren informazioa jasoa du Xenpelar Dokumentazio Zentroak, baina horietatik 150ena baino ez ditu zintzilikatu, oraingoz, sarean. Bertsolari, gai-jartzaile, antolatzaile eta epaileen

fitxak bildu ahal izanen dira bertan, biografia zehatzarekin. Webgunea euskaraz ez ezik, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez dago.

- Bertso eskolak: Guti dira webgune propioa duten bertso eskolak, baina badira. Edonola ere, arestian aipaturiko www.bertsozale.com webguneak leku berezia egin die Euskal Herriko bertso eskolei. Bertan, bertso eskolek betetzen duten funtzioaz gain, bertso eskolen mapa osatua ere bildu da, eta baita bertze hainbat atal: jokoak, foroak, argazkiak, irakasleentzako materiala, ikasleentzako aldizkari elektronikoa... Bertso eskolen artean, azpimarratzekoak dira honako webguneak:

www.albegetxo.net: Algortako Bertso Eskolako webgunea bertso eskolen artean dagoen webgunerik txukunena, politena eta osatuena da. Agenda gaurkotua du, historia bildu dute, antolatzen dituzten ekintzen berri ematen dute... eta ez da, alferrik, bertso eskola garrantzitsuenetakoa, 25 urte baitaramatzate lanean.

www.bertsoolariak.tk: Legazpiko bertso eskolaren webgunea. Webgune txukunenetakoa, ongi hornitua, chata eta guzti du, eta eguneratua dago. Edonola ere, kargatzen anitz kostatzen zaio, eta bertze domeinu baten menpe egotearen desabantaila du.

Oñatiko Bertso Eskola: Estetikoki ez da batere erakargarria. Informazio gehiegi ez duen arren, bertso eskolaren gaineko zertzeladak ematen ditu, eta antolatzen duten sariketaren berri ere bai. Ez dago sobera garatua, eta helbidea batere pertsonalizatu gabe dute: www.geocities.com/o_bertso_eskola.

Urretxu-Zumarragako Bertso Eskola: www.bertso-eskola.blogspot.com helbidean dago, blog itxura du, baina bada urte bat informazioa eguneratu ez dutela. Goierriko Bertso Eskola. Ez dago sobera garatua, eta publizitate orriak irekitzen dira. Informazio guti du, eta ez du bertso eskolaren egunerokotasuna jasotzen.

- Zerbitzuak: Lanku.com da bertsolaritzaren gaineko zerbitzu guztiak eskaintzen dituen. Enpresak berak telefono bidez ematen dituen bideak ematen ditu webgunean. Diseinuz zein edukiz hagitz osatua da, eta bertso saio baten antolaketarako beharrezkoa den guztia eskaintzen da webgunean. Ekoizpen berezien gaineko informazioa ere dago bertan. Aretxabaletako Txatxilipurdi Elkarteak, bere eskaintzaren artean, enkarguzko bertsoak hartzen ditu, bertsojartzaile zerbitzuaren bidez. Inor zoriontzeko bertso sorta bat behar duzula? Lagun bati kantatu nahi dizkiozula? Txatxilipurdik prestatuko dizkizu. Tarifak 5 eurotik aurrera dituzte, eta webgunearen bidez eska daitezke, motiboa, informazioa eta bertzelako kontuak sartuta.

www.txatxilipurdi.com

- Klasikoak: Susa argitaletxearen lana eredugarria eta aski ezaguna da, literaturaren bidetara dagokionean. Literaturaren klasikoaren artean kokatu ditu hainbat bertsolariren lanak, eta bertan topa daitezke makina bat bertso zahar eta sona handiko bertsolarien gaineko informazioa: Bilintx, Etxahun, Txirrita, Udarregi edo Xenpelar. www.armiarma.com

Bagera.net: Donostiako Bagera Euskara Elkarteak ere bere txokoa egina die Donostiako bertso zaharrei. Ez da atal zabala, baina bertan bildutakoak txukun ageri dira. www.bagera.net

- Datu baseak: Julen Urkizaren hemeroteca da horretan txukunena eta osatuena, bertsozale.com-aren ondoan. Armiarma.com-en egituraren baitan dago, baina merezi du aparteko atala. Edozein bilaketa egiteko guztiz baliagarria da. Bertsoak eta olerkiak biltzen ditu, eta Bertsozale Elkartearen webgunearen osagarri izan daiteke. urkiza.armiarma.com

www.bertsolari.net: Bertsolari aldizkariaren webguneak sarean ditu argitaratutako aldizkari eta liburuak. Hainbat bertsolariren bibliografiak ere biltzen dira bertan, eta aldizkariaren gaineko informazioa.

www.bertsoforo.com: Orriotan luze eta zabala jardun ginen bertsoforoaz.

Eztabaidarako tresna egokia da, eta badu bere dinamika. Txapelketa Nagusiaren aitzakian sortua, hori izan da atalik erabiliena, baina bertsozaleen arteko komunikaziorako, eztabaidarako eta gai ezberdinak jorratzeko baliagarria. Inolako blogen faltan, hau da parte hartzeko biderik eraginkorrena bertsozaleentzat sartean.